



10. GABONART BILBOKO GABONETAKO 40. AZOKA

GABONARTEK bere lehenengo hamarkadaren kandelak piztuko ditu aurten, Bilboko Areatzako kaian

Bilboko Gabonak ez lirateke Gabonak izango **Artisautza Azokarik gabe**. Aurten **Gabonart** azokak 10 urte beteko ditu izen horrekin eta Arbaso Euskal Artisautza Tradizionalaren Bizkortzeko Elkarteak antolatuta, eta 40. urtea izango da Gabonetako Artisautza Azoka izenarekin, beraz, Bilbokoa hitzordu nagusia izango da datozen egunotan.

Aurtengo azoka biribil eta berezi honetan, Gabonartek bere distira guztia zabalduko du Areatzako Kaian dagoen karpan. Horretarako **ospe handiko 55 profesional** beren tailerretatik aterako dira, haien produktuak ezagutarazteko. Hiriko alkateak, Juan Mari Aburtok, inaugurazio zinta moztu du, eta berarekin batera hainbat agintari presente egon dira, profesional hauek bultzada emateko.

Gabonart Azoka **abendua ren 16tik urtarrilaren 5era** bitartean egingo da. Egun Bilbokoa estatu mailan erreferente bihurtu da; izan ere, parte-hartzaile asko Euskal Herritik kanpo etorri dira. Arbasoren ustez, “Bilbo oso plaza garrantzitsua da. Egiatan, hiriak besoak zabalik hartzen gaitu, bertokoez artisautzaz ulertzen dute, eta, beraz, artisauek badakite harrera ona izango dutela”. Antolatzaileek haratago begiratzen dute, eta “horrelako ekimenek sektorearen beharra azpimarratzen dute eta **Bizkaiko hiriburuko Gabonetako Azokaren ospea** berresten dute” adierazi dute. Era berean, euskal kulturaren atal bat zabaltzen du, ekonomiaren dinamizazioa bultzatzen den bitartean.

Gabonart bezalako hitzorduak **oso garrantzitsuak dira** sektorearentzat, batez ere bizi ditugun garai hauetan, gure artean krisi sozial eta ekonomikoa ezarri baita, eta hori gainditzea kostatzen ari da. “Azokak gure erakusleihorik nagusienetarikoak dira, gure merkaturatzeko modu nagusia” azpimarratu dute.

Sustatzaileek baieztatu dute, “*krisia ez da baretzen ari, baina, aldi berean eta arraroa dirudien arren gero eta artisau gehiago daude. Gure ustez, gizartearen pentsamendua aldatzen ari da eta asko dira beste bizimodu baten aldeko apustua egiten ari direnak, bere sormenean eta bere artean etorkizun profesionala bilatzearen alde. Hori dela eta, sektorea gaztetzen ari da eta. Egia da krisiaren ondorioz, tailer askok pertsiana itxi dutela, halaber, beste batzuk igo egin dute, itxaropen eta, batez ere, haize freskoa emanez sektoreari*”.

Gizartea artisautzari balio gero eta handiagoa ematen ari zaio. “*Azkenean konturatzen gara eskuz egindakoak duen balioaz. Serieko produkzioetatik ihes egiten hasi ginen. Publikoak produktu ezberdinak eta originalak nahi ditu eta hori da artisaulanak eskaintzen duena. Ez daude bi berdina eta ezaugarri hura ordainezina da*”, berretsi du Arbasok.

Euskal Herriko artisauen elkartearen helburu nagusia da sektorearen garrantzia agerian jartzen duten ekimen mota guztiak sustatzea, eta, dagoeneko, Bizkaiko hiriburuko Gabonetako Azokaren **prestigioa** berrestea lortu du. Era berean, ekitaldi horren bidez ez da bakarrik sustatzen artisautza merkaturatzea: gure kulturaren atal baten zabalkundea ere egiten da, eta ekonomia bera dinamizatzen da.

BIZKAITARRAK, PROTAGONISTAK

Aurten **55 artisau bilduko dira** Areatzako karpan. Iaz baino bi gehiago dira, eta horietako asko berriak dira. Antolatzaileek gogorarazi dute “*gauden lekua maite dugu ezin genuen leku hobetarik izan. Artisauek leku duina izango dute eta jendeak artisautzaz gozatzeko aukera izango du eguraldi txarrak izanez gero*”.

Ekoiizleen artean, bizkaitarren presentzia oso nabarmena da, bertaratutako guztien artean % 55 Bizkaikoak dira, eta horietako asko **hirikoak, % 29a**, hain zuzen ere. “*Horrek aukera ematen du Bizkaiko sektorearentzat oro har eta Bilbokoarentzat duen garrantzia egiaztatzeko, hau da, tokiko ekonomia zirkularraren motoreak dira*”, laburbildu dute antolatzaileek. Dena den, horrek ez du esan nahi Bizkaitatik at ez direla etorriko.

Datuei dagokionez, Bizkaiko 30 artisau izango dira, eta horietako **16k lurraldeko hiriburuan dute tailerra**. Gipuzkoak 4 profesional izango ditu eta hiru Arabakoak. Gure mugatik kanpo, Gaztela Mantxa, Gaztela Leon, Kantabria, Asturias, Galizia, Murtzia, Madril, Katalunia, Valentzia, Extremadura, Andaluzia edo Balear Uharteetako artisauak ere hurbilduko dira.

Sektoreka, aurten **ehungintza izango da gremio nagusia** 8 profesionalekin, atzetik datoz bitxigintza, larrugintza eta zeramika, bakoitzak sei artisau izango ditu. Hurbil daude zurgintzan aritzen diren artisauak, 5 ordezkariakin. Bestalde, kosmetikan eta imitaziozko bitxigintzan aritzen direnak, edizio honetan, zortzi izango dira. Beira beti egon da Gabonarten, aurten ere bai; izan ere, beirazko hiru artisau egongo dira. Jostailugintzazko bi profesional egongo dira. Multzoa argizarigile bik osatuko dute eta beste hainbeste koadernaketarekin lotuta daudenak. Oinetakoen, ilustrazioaren, kalabazen, makramearen, eskulturaren, birziklapenaren eta lore lehorren ordezkariak ahaztu gabe.

Guztion artean, Areatzako Kaia artisautzaren hiria bilakatuko da, eta bilbotarrentzat zein bisitarientzat ezinbesteko topaketa izango da, garai zail hauetan tokiko kontsumoaren inguruko **elkartasunak eta kontzientziak** beste dimentsio bat hartzen baitute.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, izaera sozialekotzat hartua, euskal artisautza tradizional eta garaikidea sustatzeko xedea duena, eta jarduera-eremu Euskal Herria duena.

Artisau elkarte bakarra da Euskal Herrian nazio izaera duena. Euskal Herri osoko eskulangileen ehun lantegi inguru biltzen ditu elkarteak.

Helburuak hauek dira:

- Euskal Artisautzaren Sektorea ordezkatzea.
- Sustapen lana egitea artisautza tradizionala ezagutua izan dadin eta egunero balia dadin.
- Euskal artisautza tradizionalaren jatorri deitura edo sor marka lortzea; horretarako, badute kalitate etiketa bat Gipuzkoan eta Nafarroan.
- Euskal artisautza nahiz kultura indartu nahi duten erakunde publiko eta pribatuen parte hartzea lortzea.
- Eguneroko artisautza lanari eustea, gure etorkizuneko kultur ondarearen giltzarri moduan. Azken batean, etorkizuneko belaunaldiei ezagutzera ematea kultura tradizionalan aberatsa den herri honen usadio eta ohiturak.

FITXA TEKNIKOA

EDIZIOA: 10. Gabonart - Gabonetako 40. Azoka

EGUNAK: Abenduaren 16tik urtarrilaren 5era.

ORDUTEGIA:

Goizez, 11:00etik 14:30era.

Arratsaldez, 17:00etatik 21:00etara

Abenduaren 24an eta 31n, goizez, 11:00etik 15:00ra.

*Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Abenduaren 16an, ostiralarekin, eguerdiko 12:15ean.

ARTISAUEN SALTOKIAK: 55

LURRALDEKA ETA ERKIDEGOKA:

Bizkaia	30		
Gipuzkoa	4		
Araba	3		
Galizia	1	Murtzia	1
Kantabria	3	Extremadura	1
Asturias	4	Valentzia	1
Gaztela-Mantxa	1	Madrid	1
Gaztela eta Leon	2	Balear Uharteak	1
Katalunia	1	Andaluzia	1

SEKTOREKA:

Ehungintza	8	Kandelak	2
Beiragintza	3	Zapatagintza	1
Bitxigintza	6	Enkoadernaketa	2
Imitaziozko bitxiak	4	Jostailugintza	2
Zeramika	6	Ilustratzailea	1
Lore lehorrak	1	Kuia	1
Larrugintza	6	Makrame	1
Kosmetika	4	Reziklajea	1
Zurgintza	5	Eskultura	1

KOKAPENA: Areatzako kaian.



BABESLE NAGUSIA: Bizkaiko Foru Aldundia.

BABESLEAK: Bilboko Udala.

Hamaika Telebista

Onda vasca

Radio Popular

Deia

Gara

SAREAN ZABALTZEA: <http://gabonart.blogspot.com.es>

www.arbaso.com

KOMUNIKAZIOA: prentsa@arbaso.com

607 86 32 24